

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3669

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 30ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako 2013. urteko laguntzak arautzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontuan, 2013ko ekitaldirako luzatuta, 260.000 euroko aurrekontu-partida bat jasota dago, terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematen duten elkarteentzako diru-laguntzak arautzeko.

Herrizaingoko sailburuaren 2011ko ekainaren 22ko Aginduaren bidez, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautu ziren. Agindu horren 6. artikuluan ezartzen denez, deialdia egingo da urtero, eta dei hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Deialdian zehaztu behar da zer baliabide bideratuko diren urtero laguntza horietara, bai eta nola egongo diren banatuta ere baliabide horiek, programa-moten artean eta diru-laguntza jaso dezaketen jardueren artean.

Orobat, 187/2013 Dekretuaren 19.3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak egin behar du bere eskumenen barruan dauden diru-laguntzen deialdia (Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du aipatu dekretuak).

Ondorioz, Lehendakaritzaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen bidez, terrorismoaren biktimei laguntzeko programak eta jarduerak finantzatzeko laguntzerako dei egiten da. Programa eta jarduera horiek 2013. urtean gauzatuko dira, eta gehienbat terrorismoaren biktimen edo giza eskubideen arloan aritzen diren erakunde eta elkarteek sustatuko dituzte, hala baitator ezarrita Terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautzeko Herrizaingoko sailburuaren 2011ko ekainaren 22ko Aginduan.

2. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabideak eta hurrengo atalean aipaturik dagoen dokumentazioa Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzan aurkeztu behar dira, bertara joanez, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako erakundeetan aurkeztu beharko dira. Bide telematikoak erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira, honako egoitza elektronikoa honetan:

<https://euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/terrorismoaren-biktimei-dirulaguntzak/>

Eskabide-eredua agindu honen eranskin gisa agertzen da, eta lehen aipatutako ULR egoitza elektronikoa ere eskura daiteke, non jaso baitaitezke laguntza horiek izapidetzeko bide telematikoa erabiltzeko argibideak.

3.– Eskabide normalizatua behar bezala beteta aurkeztuko da, eta horrekin batera, honako agiri hauek:

a) Erakunde eskatzailearen izenean eskabide sinatzen duen pertsona nor den egiaztatzen duen agiria.

b) Terrorismoaren biktimen elkarteen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako terrorismo-ekintzen biktima diren elkarteko kideen kopurua egiaztatzen duen agiria, bai eta biktima horien lehen mailako senitartekoen kopurua ziurtatzen duena ere.

c) Honako hauek zehazten duen proiektuaren memoria:

- Helburua.
- Metodologia.
- Lan-prozedura.
- Proiektua norentzat duen eta zein ezaugarri dituen.
- Partehartzaile-kopurua.
- Erakundeko zein pertsonak garatuko duten proiektua, eta, hala badago, zein pertsona kontratatuko dituzten horretarako.
- Non garatuko den.
- Helburuak lortuko direla eta gastua eraginkorra izango dela bermatzeko erabiliko diren kontrol-bideak.
- Erakunde eskatzaileak eskabidea barematzeko egoki iritzitako beste edozein informazio, agindu arautzailearen 10.3 artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik. Eskabidean baloratu beharreko irizpideren bati buruz informaziorik ematen ez bada, irizpide horrek 0 puntu izango du.

d) Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehaztua, honako hauetatik datozen ekarpen ekonomikoak berariaz aipatuz:

- Erakunde eskatzailea.
- Proiektuaren hartzaileak.
- Beste erakunde pribatu batzuk.
- Beste edozein administrazio publiko.

4.– Nolanahi ere, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak erakunde eskatzaileari eskatu ahal izango dio nahi beste dokumentazio eta informazio, eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko.

3. artikulua.– Diru-zenbatekoa.

Agindu honen dotazio ekonomikoa berrehun eta hirurogei mila eurokoa (260.000) izango da. Diru horren erdia laguntza horiek arautzeko Herrizaingoko sailburuaren 2011ko ekainaren 22ko

Aginduaren 10.1 artikuluan ezarritako prozeduretako bakoitzarentzat izango da. Prozeduraren batean emandako diru-laguntzen zenbatekoak prozedura horri esleitutako dotazioa agortzen ez badu, soberako baliabide ekonomikoak beste prozedurari gehituko zaizkio.

4.– artikulua Ebaluazio batzordea.

Aurkezten diren eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, Ebaluazio Batzordea eratuko da; kide hauek izango ditu:

Lehendakaria:

– Lehendakaritzaren Araubide Juridiko Zuzendaria, Nieves Martínez de Antoñana.

Mahaikideak:

– Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzaren teknikari bat, Laura Sagastizabal.

– Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren teknikari bat, Rosa Ballesteros.

Idazkaria:

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzaren teknikari bat, María Angeles Sánchez.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio ematen amaiera administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, interesdunek, nahi izanez gero, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Bake eta Bizikidetzaren Idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 30a.

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.

MÓNICA HERNANDO PORRES.

2013ko abuztuaren 20a, astearta

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO
Secretaría General para la Paz y
la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Eskabidea

TERRORISMOAREN BIKTIMEN ERAKUNDEAK

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Erakundearen izena *

Telefonoa

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua

 Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

 Posta bidezkoa

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

 Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

 Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman ez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste finantziario-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Beste finantziario-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Inskripzio-adierazpena

Erakunde eskatzailea legez eraruta dago, eta dagokion erregistroan inskribatuta. Inskripzioaren datuak:

- Euskadiko _____ erregistroa.
- Data _____

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu bezala².
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

_____ (Tokia) (e)n _____ (Data) (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO
Secretaría General para la Paz y
la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

TERRORISMOAREN BIKTIMEI ARRETA, ELKARTASUNA ETA BABESA ESKAITZEA BULTZATZEN DUTEN ERAKUNDE ETA ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEN ERANSKINA

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzen den laguntza mota

A)

- Terrorismoaren biktimei arreta, orientazioa eta giza babesa.
- Biktimak edo bere senitarteak laguntza Entzutegi Nazionalean gauzatuko diren epaketara.
- Terrorismoaren biktimei eta zaintzailearen lana betetzen duten familiako pertsoneri laguntza psikosoziala.

B)

- Terrorismoaren biktimei buruzko eztabaida-guneak, ikastaroak edo mintegiak antolatzea.

Proiektuaren izenburua	Aurrekontua

+ Lerro Berria Gehitu

Erregistroaren datuak / Izena ematen duen errolda

Erregistroaren izena / Errolda: *

Erregistro data: *

Erregistroaren zenbakia: *

Estatutuek elkartearen helburua hurrengo delako jasotzen dute (hitzez hitz kopiatu): *

Zuzendaritza partaideak *

Taldeko Aginte Organo/Entitatearen Zuzendaritza Batzordeko kideak, eskabidearen datan indarrean eta erregistroan edo erroldan erregistratuta egonik, honako hauek dira, (hitzez hitz kopiatu, izenak eta karguak adieraziz. Erakundearen estatutuak taldeko Aginte Organo bat existitzea aurreikusten ez badu, lehendakaritza, idazkaritza eta altxortegia osatzen duten pertsonen izenak eta karguak adierazi):

Izena	Kargua
	Lehendakaria

+ Lerro Berria Gehitu**Beste finantziazio iturriak**

Beste finantziazio iturriak erabili dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zeintzu?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu

Beste laguntzak eskatu dituzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein organismoari?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu